

ASPALDIKO MENDEEN MENDEAN?

Enma Arestegui, 14 urte

Hazparne

Hegazkinean, ingeles eta gaztelera nahasketa bat entzuten nuen. Bilboko aireportutik Irlandarako hegazkina hartu nuen, ene baitan sentitzen nuen sentimendu erauntsiari aurka eginez. Eserleku goxoan, sakon jarri nintzen eta ene pentsamendu ilunak etortzera utzi nituen. Ene 17 urtetako opor hastapena zen eta amak Irlandara igorri ninduen bere orde, bere amaren ehorzketetara. Ez nintzen sekula hara joana eta ez nuen sekula hara joaiteko gogo berezirik ukan, jakin-mina baizik. Ene ama hangoa zen, baina bere amarekin kexu izanki, ez zen hara itzuli bere aitaren heriotzaz geroztik, 1974an, sortu nintzen urte berean. Eta orai, bere ama, ene amatxi, zendu zen, eta ni nintzen joan behar herri hotz, hodeitsu eta ezezagun hartara bera lanpetuegi baitzen. Segur nintzen ez zela arrazoi bakarra, baina ez nuen deus erran. Beharrik, ingelesa guti gorabehera banekien. Dena antolatu zela segurtatu zidan amak: aireportutik landa taxi bat zain nuela, gero handik eremaiteko nire amatxiren herrixkara, leku galdu batean zena, itsa-

soaren ondoan, Cudlow deitutako herri ttipitik 50 kilometrotara zena. Onartu nahi ez banuen ere, bidaiia ttipi horrek pozten eta jakin minez betetzen ninduen. Ene amak ez zidan behin ere bere familiariaz hitz bat esan, salbu hamazortzi urtetan joan zela Euskal Herrira kexu baitzen bere amarekin. Eta aipatzen nuen aldi bakoitz bere begirada iluntzen zen, galtzen urrunean, eta ezin nion deus atera.

Orduan, hegazkinean, gordetako galdera guziak berriz etortzen zitzaizkidan, bisaia gabeko arbaso horiek ikusi nahi nituen, eta ume batek bezala, sentimenduen arteko borroka bat nabari nuen ni baitan, ene zintzurra tinkatzen zuena. Oren bat eta erdi iragan zen hegazkinez airatu nintzenetik, baina leiho baten ondoan jarri banintzen ere bazterrak ez nituen ikusten ahal, dena hodei zelako. Aireortura heldu nintzenean, arratsaldeko seiak ziren eta egun ederra zen, zeruan urdin baino xuri gehiago baldin bazen ere. Ene poltsa hartu eta aparkalekura abiatu nintzen. Berrogeita hamar bat taxi zain zeuden eta beste pentsamendu tzar bat ukan nuen nire amari buruz: taxi bat beha nuen, baina zein? Beharrik, norbait ikusi nuen niregana hurbiltzen irri zabal batekin... Gizon argal eta ile gorrikoa zen eta, ingelesez, irlandar doinu biziki azkar batekin galdegin zidan:

– Naiara ote zara? Ni Pat naiz, zure amaren gazetako laguna... Erran dizu zain egonen nintzaizula?

– Bai, erran dit...

– Ez beldurtu, zure amaren gaztetako laguna naiz... Ez dizu sekula hitz egin nitaz?... tira begira argazki honi...

Eta bere moltsatik argazki zimurtu eta zahar bat atera zuen. Ene ama ezagutu nuen eta bera ere, baina biziki gazteak izan behar ziren, berak oraino haur baten begitarte borobila baitzuen eta ene amak egiazko mutil bat iduri baitzuen.

Hala bada, segitu nuen. Baina zer harridura ikusi nuenean kamioi ttipi baten atea irekitzen zuela, eta ez taxi hori eder batena. Ene harridura ikusi zuenean irri trabatu batekin esplikatu zidan:

– Ah bai! Taxi gidari bat goaitatzen zenuen ezta? Baina egia erraiteko, ez da taxizale bat S***era joaiten dakiena, eta Cudlow-eraino joaiteko ere, diru zama polit bat ordaindu beharko zenuke; orduan, ni naiz etorri zure xerka. Eta barka ene kamioi zahar eta ez biziki goxoarengatik, baina gure bide zaharretan ibiltzen usatua da. Gainera, ez dut aski dirurik beste baten pagatzeko.

Eta ondoren irri ozen bat egin eta kamioiaren barnean sartzera gomitatu ninduen. Hiritik ateratzen ginen bitartean, ene amaren berri galdezka hasi zen, ongi zenentz, aldatu zenentz eta berriz Irlandara etortzeko gogorik ba ote zuenentz. Hainbat galdera pausatzen zituenez, pentsatu nuen gaztetan lagun bakarrik izan ote ziren...

Ber momentuan, bazterrak begiratzen nituen eta ene zintzura berriz tinkatu zen: irrealia zirudien berde eder bat begietan sartzan zitzaidan. Oraino ere Irlandari pentsatzean, berde azkar eta leun hau

bistara etortzen zait. Dena haran eta mendi leun zen. Goxoa eta amultsua zen. Pentsarazten zidan Euskal Herriko iparraldeari, baina hotzago, hodeitsuago, misterioitsuago, naturalki pobregago, ez baitzen hainbeste zuhaitz, arroka gotor batzuk baizik.

Pixkanaka-pixkanaka hartzen genituen bideak hertsiagoak eta zaharragoak bilakatzen ziren. Herrixka gero eta ttipiangoak gurutzatzen genituen eta beldurtzen hasia nintzen, baina Patek bidea lasaiki segitzen zuen kantu irlandar bat ahapeka emanez. Eta melodia goxo horrekin kamioi zikinean lokartu nintzen.

Motorra gelditzen sentitu nuenean jaiki nintzen. Patek ahots alai batekin jakinarazi zidan:

– Hara! Gure taxiak printzesa jauregia ekarri du!, eta barre algaraka hasi zen.

Burua itzuli eta ulertu nuen Paten umorea zela... Borda eder baina zahar baten aitzinean aparkatu zuen, eta bordak ez zuen palaziotik deus! Baratze handi bat zegoen, baina ez zen batere artatua.

Pat jautsi zen kamioitik eta borta ireki zidan ingeles soldatu baten errespetu osoarekin. Xehela beltza pusatu nuen eta harrizko bidean aitzinatu nintzen kasu eginez arrosen xixtakoei. Estai gabeko borda antzeko harrizko etxe bat zen. Zur zaharrezko atea ireki nuen eta gaizki argitutako salan sartu nintzen. Egia erraiteko sala bat baizik ez zegoen, baina goxoa iduri zuen. Patek segitu ninduen ene poltsak ekarriz eta erran zidan ahots dardaratiz:

– Hau zure amatxiren etxea zen, zure amari utzi dio, baina zure amak nahi ez badu horrela egonen

da eta herrixkako abantzu beste etxe guziak bezala galdua izanen da... orai, zatoz! Auzoak presentatuko dizkizut!

Etzetik kanpo segitu nuen. Berrehun metrotara zen etxe baten atean bi aldiz jo zuen. Erantzunik ez baitzuen ukaiten, segidan sartu zen, baina ez zen nehor. Hala, antzekoak ziren bizpahiru etxetan jo zuen atea, baina nehor ez! “To baina non ote dira denak?, murmurikatu zuen aski gora, beharbada Jacken etxean...?”

Orduan azken etxettoaren atea joz, erantzun bat ukan zuen. Sartu ginen eta Patek suposatu zuen bezala denak han ziren. Hogeita hamar bat jende izan behar ziren eta denak hogeita hamar urtetik gorakoak. Patek bere boz lodiaz presentatu ninduen:

– Hara Naiara, Maryren alaba... Ene amaren izena ahoskatu zuenean, begirada guziak enegana itzuli ziren. Haien begiradetan denetarik irakurtzen ahal nuen: kexadura, tristura, mesfidantza, zoriona, galderak, jeloskortasuna... “Eta berriz etorri da denak jo gaituen malurrarengatik, Nany bere amatxiren heriotzarengatik”.

Berriz begiradak ene gainean pausatu ziren, baina aldi hartan tristura gehiago irakurtzen zen. Orduan, emazte ttipi eta makila bezain mehea aitzinatu zen eta bi buru bera baino handiagoa banintzen ere, besarkatu ninduen bere beso hauskorretan. Boz ahul eta goxo batez erran zuen: “Ongi etorri edo berretorri! Hemen zure etxea da!”

Eta beste guziek onetsi zuten, batzuek malkoa begian edo eztulka. Segidan onartua bezala sentitu nintzen. Denak nigana hurbiltzen ez baziren ere, batzuen ezagutza egin nuen: bat Jack zen, bere etxean ziren denak elkartu ene goaitatzeko. Bera marinel ohi bat zen, eta bere emaztea bera itsasosan zenean hil zenetik, bere sorterrian egon zen. Denetarik maitatua zen eta pixka bat etxe multzo horretako alkatea zen. Han zen Marge ere, Paten ama, lehenago besarkatu ninduen emazte argala. Oso abila zen eta denetarik zaharrena zen, bera zen kontseilu emailea eta adin handi eta pisu ttipi bat bazuen ere, denetarik errespetatua zen. Beste emazte diskretu baten ezagutza egin nuen ere, Sabina zuen izena eta zioenez ene auzo hurbilena zen. Pat eta ni joan ginen lehen etxean bizi zen, 45 urte zituen, ile beltz luzeak eta begi urdinak, maitatua zen bere gozotasunarengatik. Esplikatu zidan bere aita buhame bat zela, baina S***ez maitemindu egin zela eta bidaiatzetik gelditu han egoiteko bere biziaren bukaeran. Bere zerbitzuak proposatu zizkidan eta nik bihotz onez eskertu.

Baina fite, zerua iluntzen hasi zen eta bakoitza bere etxera itzuli zen. Pat eta Sabinak ene etxera arte lagundu ninduten eta Patek supazter ttipian su hori eta bero bat piztu zuen erranez Irlandako gauak hotzak zirela eta hobe nuela borta ongi bestea hotzaren eta izpiritu txarrengatik. Eta gau ilunean desagertu zen esku keinu batekin. Sabinari segurtatu nion ez nuela ezeren beharrik. Atera iritsi zenean itzuli zen eta zerbaiten erraiteko zorian

iduri zuen, baina edo ez zuen kuraia ukan edo ez zen sobera inportantea, eta horren ordeztan erran zidan:

– Zure amatxiren eite handia duzu... gau on...

Eta irri triste batekin atera zen. Azkenean baka-
rrik izan nintzen etxe zahar eta bitxian. Lehenago ez nuen ikusi, baina denetan lore ihartuak, xori lumak, zurezko iruditxoak ziren. Gauza guzi horiek zerbaite bitxi zuten: bizirik zirela iduri zuten eta ez dakit nola erran, baina niri so zirela sentitu nuen. Bat-batean ez nintzen hain segur sentitu eta Sabinaren ikustera joaiteko ideiak kitzikatu ninduen, baina segidan berriz kontrolatu nintzen eta ene akiduraren eta iluntasunaren ondorioz zela pentsatuz, ene maleta desegiten hasi nintzen eta ohean jarri nintzen. Momentu batean etxea miatzen eta ene amatxiri buruzko informazioa biltzeko nahia etorri zitzaidan, baina akidurak jo ninduen eta amets gaiztoz betetako loan murgildu nintzen.

Biharamunean, buruko minarekin jaiki nintzen. Ene ametsetan entzun nuen boz apal eta idorra entzun nuen: «You must stop the curse!» Eta ondortik ene ametsean zen bisaia burura agertu zitzaidan: begi beltz zorrotzak, non otoitza eta gorrotoa nahasia zen, ile beltz luzeekin eta adin jakinik gabeko azal xuria. Zinez bitxia eta beldurgarria zen; begitarte hura ez nuen sekula ikusi edo sekula amestu, eta erraiten zuena ingelesez zen. Mezu bat zela iruditu zitzaidan une batez, baina segidan, ene nerbioak zirela pentsatu nuen; ene amatxiren hiltzea, etxe huts eta beldurgarriek hunkitu nindu-

ten... Orduan, sukalde aldera joan nintzen, ura beroarazi eta altzari zaharrean atzeman nuen te hosto idorrekin edari bero eta azkarra prestatu nuen. Eta oroitu nintzen egun hartan zela ene amaxiren omenaldia. Egia erran, ez nekien batere zer pasatuko zen, ez nuelako elizarik ikusi, edo erlijio zeinurik... Hala bada, ilunki beztitu eta Sabinaren etxera abiatu nintzen.

Haren atean hiru aldiz jo, «sartu» entzun eta sartu nintzen. Pixka bat ene etxekoa bezalakoa zen salan sartu nintzen. Baina bere etxean, harrizko murru hotzak tindu luze eta koloretsuz apainduak ziren eta alaitasun nota bat ezartzen zuten. Ikusiz begiratzen nituela erran zidan:

– Ene aitarenak... Ongi lo egin duzu?

– Ez sobera. Ez dut usaiarik bakarrik lo egiteko etxe zahar eta ezezagun batean.

Bizpahiru minutuz bitxiki begiratu zidan, ni baitan irakurri nahi izan balu bezala, eta berriz irri ttipi bat agertu zitzaion ezpainenetan.

– Barkatu, gose ote zara?

– Ez milesker, omenaldi horrek beldurtzen nau, eta ez nuke ezer jan nahi.

– Ez zenuke beldurtu behar...tira, lehenik bizpahiru kanta eginen dira gorpua inguruan, gero Marge zaharrak diskurtso ttipi bat eginen du eta azkenik gorpua itsasora botako da.

– Itsasora?

– Bai hemen hala da, betidanik egiten da, segur aski lehen, hemengo biztanleak, itsasotik bizi zirelako, eta eskertzeko manera bat da. Badakizu...

herri hau biziki berant arte mundutik moztua izan da. Eta beren sinesmenak dituzte, pixka bat garatu badira ere ehun urtetik hona. Nik bizi hau maite dut. Mundutik moztua pixka bat uharte batean bezala...

Azken esaldi horrek ene bizkarrean hotz ikara bat sortu zuen. Baina berak segitu zuen:

– Nahi zenuke itsasoa ikusi? Tenore honetan biziki ederra da!

Eta hauturik utzi gabe bere gau arroparen gainetik artilezko trikota lodi bat ezarri zuen eta atera ginen kanpo hotzera.

Emeki hasi ginen urruntzen etxeetatik eta bidexkak hartuz arroka eta pentze berdeek fite inguratu gintuzten. Malda ttipi bat igo genuen eta han ene bizi osoan ikusi nuen paisaiarik ederrena ikusi nuen: amildegi baten aitzinean nintzen eta ene begien aitzinean itsaso zabala oraindik erdi lo, bere edertasun osoan ageri zen. Gorri, ubel, laranja, arrosa eta urdin nahasketa bat zen, bi aldiz: bata zeruan, bestea itsasoan islatzen zena. Haizea epeldu zen eta bisaia ferekatzen zidan gatzaren usaina eta gustua sentiaraziz. Abantzu amildegian behera, neure burua itsasora botatzeko gogoia emaiten zidan, edertasun hura ikustean deuseztatua sentitzen bainintzen eta sekulako askatasun irudi bat zelako. Ene baitan suziriaren bezalako zapartatzeak sentitzen nituen eta ez dakit gatza zenez edo, baina malkoak ene begietara iritsi ziren eta ene ahora iritsi zirenean ez nintzen harritu itsasoaren gustua sentitzearekin. Azkenean, nire onera etorri

nintzen, ohartu nintzenean Sabina niri so zela bere begirada urdin eta sakonarekin. Alde batetik, pixka bat beldurrarazten ninduen: hangoa bazen ere buhameen begirada sakon eta seriosa zuen eta besteen bihotzetan irakurtzen zekiela zirudien. Ene baitan beste norbait ikusten bazuen bezala so egiten zidan. Eta egia erran, benetan, “beste” hau nigan sentitzen nuen, ez sortzen baina agertzen. “Beste” hura Irlandan sortu zen eta azkenik berriz hara itzultzean ni baitan gordea bazen bezala, bizitzten hasten zen. Ez dakit nola azaldu, baina sentsazio horrek beldurtzen eta azkarrago sentiarazten ninduen. Zerua pixkanaka-pixkanaka argitzen hasi zen; orduan, Sabina eta ni isilean joan ginen. Etxera arribatu aitzin, Sabina gelditu zen eta boz bitxi batez erran zidan:

– Gauza harrigarri batzuk gertatu dira hemen... ez dakit zer, baina, hasteko, horiengatik zara zu berriz etorri.

Eta itzuli zen ahots arruntago batekin gehituz:

– Omenaldia oren laurden baten buruan hasten da... Jack-en etxean elkartuko gara denak... Gero arte!

Eta bere ibilera lasai eta misteriotsuarekin alde egin zuen. Sartu nintzen ene etxean eta berriro te azkar bat egin nuen ene izpiritua lasaitzeko. Ulertzen hasi nintzen gertatzen zitzaidana ez zela normala. Eta segur nintzen ene amets gaiztoek zer ikusirik bazutela gertakari guziekin. Irlandan *sartu* nintzeneko beste norbaiten presentzia ni baitan sentitzen nuen eta Sabinak egia zioen, gauza mis-

teriotsu batzuk gorde behar ziren horren azpian. Baina ez nuen pentsatzeko denbora gehiagorik ukan, zeren oren laurden bat pasatu zen eta Jack-en etxean goaitatua nintzen.

Hara heldu nintzenean, denak biziki triste eta urduri atzeman nituen, bizpahiru jendeak beren besoetan hartu ninduten. Hastapenean haien tris-turatik kanpo sentitu nintzen pixka bat, baina haien malkoek egiazki tragikoak iduri zuten eta fite tristura hotz bat sentitu nuen. Eguzkiaren ondotik lainoak ere altxatu ziren eta jende multzo horren itxura oraino gehiago ilundu zuen. Pat eta Jackek ene amatxiren hil kutxa bizkarrean zuten. Momentu bat berantago amildegia-oren ondora arri-batu ginen, baina harrian zulatutako bide bat hartu genuen eta hondartzara heldu ginen. Area bustia zen eta gure urratsek zilo sakonak marraz-ten zituzten. Heldu ginen arroka karratu eta lodi batera, eta han pausatu zuten hil-kutxa. Margeren boz azkar baina goxoa uhinen gainetik altxatu zen: “Badakit denek zer sentitzen duzuen. Badakit, zeren Nany denentzat norbait ezberdina izan bada, niretzat lagun mina zen. Bere familian istorio eta misterioak izan badira ere, emazte azkarra eta laguntzailea zen. Nany gure medikua zen, arima eta gorputzarentzat. Arimarentzat, beti hor zelako besteei laguntzen, izaeraren gainetik ikusten zuen, eta edozein sufrikario bazekien sendatzen”. (Bere begirada Jack-en gainean pausatu zuen momentu batez) “... eta gorputzaren medikua; bai, bere arba-so emeatarik zuen dohaina erabiltzen jakin izan

zuen, beti besteen onerako eta horrela ez genuen sekula beste nonbaiteko medikurik behar izan. Bai, beti zure eskasa sentituko dugu, baina erraiten zenuen bezala, gorputza eta arima bi gauza oso ezberdinak dira, nahi ala ez nahasiak badira ere. Beraz, zure gorputzak utzi gaitu, baina zure izpirituaren parte bat gurekin egonen da betirako”.

Isildu zen eta itsasoaren sufrikarioa entzun zen. Ordu arte ikusi ez nuen txalupa batean sartu zuten hil-kutxa eta Jack abiatu zen uhinetan barna. Momentu bat berantago berriz heldu zen, baina txalupa hutsa zen. Ene begietan sortzen ziren malkoen gordetzeko burua itzuli nuen eta amildegiko arroketa so egin nuen. Eta hor, bihotzean zitzada bat ukan nuen: arroken artean, bi begi beltz eta sakon guri so zeuden. Begi horiek ene ametsetako berberak ziren, salbu horiek erre-alak zirela. Burua ikusten saiatu nintzen baina ile beltz mordoxka bat baizik ez nuen ikusi. Norbaiti gertatzen zitzaidana adierazi nahi izan nion, baina edo mutikoa ohartu zen edo amets egin nuen... hasteko, segundo batzuk berantago desagertu zen. Ene begiradak luzaz arroka multzoa miatu zuen, baina segurenez ere gorde zen edo bestela, izpiritu bat bezala ketan joan zen. Jende tropa ttipia abiatu zen eta gertakaria xumea ahanztera entseatu nintzen. Denak Jacken etxeari buruz abiatzen ziren eta Pat, ene ilegorridun gidaria hurbildu zitzaidan eta galdegin:

- Gau ona pasatu duzu?
- Bai.

– Badakizu, zure amatxi emazte bikaina zen. Oso bitxia baina paregabea. Haren eite handia duzu, baina berak begi ilunak zituen, sekretuz beteak, eta ahotsa apalduz, batzuek zioten sorgina zela. Nik... ez dakit. Ene ustez sorginak gaiztoak dira eta ez zen ongi egileagorik zure amatxi baino. Eta Kingsley familiaren misterioaz aparte Nanyk ez zuen istoriorik.

– Zer da Kingsleyren istorioa?

– Ba! Zahar istorio bat... Nik ez dakizkit xehetasun guztiak, baina... erraiten da zure familia eta Kingsley familia betidanik etsaiak zirela. Baina lehen, Kingsley familia pixka bat herriko jauntxo-ren familia edo zen, horiek ziren hemengo aitzindariak. Duela oso aspaldi zen hori, ez nintzen sortua ere oraino. Baina urte batez, misteriotsuki den denak hil ziren. Ez da nehor geratu. Eta denek zekiten Nanyk hastio zituela. Nehork ez daki zendako. Baina Kingsleytar guziak eritasunez, eromezez, desesperazioz... hilak dira eta iduri zuen bera zela horren azpian. Eta bere familiako emazte guziak sorginak zirela denek bazekiten. Orduan, begiradak harengana joan ziren, baina jendea beldur zen edo ez dakit zendako, baina ez dio inork sekula deus galdegin...

Eta autoan zuen ber melodia xistu egin zuen. Hori guzia jakiteak mutu jarri ninduen eta milaka galderek mihia erretzen bazidaten ere, ahoa hetsia atxiki nuen. Pat itzuli zen enegana eta erran zidan informazio gehiago nahi banuen bere amaren, Margeren ikustera joateko. Baina lehenik ideia

guziak argitu nahi nituen. Bakarrik istorioak ziren baina... beharbada gertatzen ziren bitxikeria guziei erantzuten ahal zieten. Lehenik, sorginkeria hori. Ez nuen sekula sinetsi sorginkeria edo izpiritu ipuinetan, baina hor, beste mundu batean nintzela zirudien eta mundu horretan dena posible zela pentsatu nuen. Betidanik, hango biztanleak egiazko mundutik moztuak ziren. Haien sinesmen, bizi, etxe... Haiek zituzten asmatu. Baina nola jakin zer zen egia eta zer gezurra?

Jacken etxera arribatu ginen eta denek itxura alaiagoa zuten. Mahai alimaleko bat atera genuen eta zopa on bat jan, alaiki. Emazte zahar bat zutitu, trikitixa atera eta melodia eder, triste edo alaiak jo zituen giroa berotuz. Sagarno on bat edan genuen eta arratsalde osoa umore on eta goxoan pasatu zen, txiste, negar eta irrien artean. Ohartu nintzen, inoiz baino hobeki sentitzen nintzela. Denak moz-kortasun bero eta goxo batean zeuden eta bikoteka edo hirunaka etxeratzen hasi ziren. Pat eta bere ama Marge ere etxeratu ziren. Orduan azken jendeekin mahaia biltzen hasi nintzen eta Sabinarekin etxeratu nintzen. Lehenik bere etxera joan ginen. Han nire biziak mintzatu ginen. Biziki kuriosa zen, nire biziak dena jakin nahi zuen. Azkenean buruko mina ukan nuen, orduan ene etxera itzuli nintzen logura pizu batekin. Ohe astunean etzan nintzen eta lo sakon eta ilunean murgildu.

«Dena iluna da. Ama lasterketa ari da, baina bestea ere eta bere korrika astuna entzuten dut. Amaren hatsa bizitzen da, bestearena ere gure

gibelean. Ez dut deus ikusten, ilargia hodei lodi eta beldurgarri batean preso baita. Gizonak ez daki hor naizela, amaren besoetan tinkatua. Amaren bihotz taupadak sentitzen ditut. Bat-batean ilargia agertzen da. Amildegian gara! Ama ere ohartu da eta arroka lodi bat ikusiz pausatzen nau bere babe-sean eta murmurikatzen dit belarrira: “Nany entzun nazazu... hemen gordeta egon behar duzu. Edozer pasatzen dela ere... ados laztana? Eta ama ez bada agertzen eguzkia jakitzen denean etxera itzuli” Eta bere bularrean tinkatzen nau “maite zaitut” erranez. Gizon iluna hurbiltzen ikusten dut, baina bere bisaia itzalean dago. Ene amarengana hurbiltzen da eta boz apal batez mintzatzen zaio. Ene amaren beldurra nagoen tokitik sentitzen dut, baina ezin naiz mugitu. Azkenean gizonak ahots azkarrago batez erraiten du: “Ez duzu errana errespetatu! Zoaz infernura sorgin zikina!” Besotik tiratzen du eta amildegira pusatzen. Gizona itzultzen da eta bere begi ilunak bihotzera etortzen zaizkit: Kingsley jaun ospetsua da! Baina momentu berean ene amaren oihua entzuten dut Eeeeeeeeeeeeeeeeeeeeeeez!!!

Izerditan nintzen. Ene *bestea* nitan sentitzen nuen inoiz baino gehiago. Baina jada banekien nor zen *beste* hura. Nany... ene amatxi nintzen eta ni betan. Nanyren izpiritua nitan zen. Baina zendako? Zer nahi ote zuen? Mendeku bat? Lehen egin zuen gauza baten konpondu nahia? Hasteko, amets hauek egiazki noizbait gertatu ziren eta hori guzia argitu behar nuen. Ene ametsean ama deitu

nuen pertsona nire arra-amaso izan behar zen, ene amaxiren ama. Baina inork ez zuen aipatu amildegian hil zela. Bat-batean, ene bizkarrean dardarak sentitu nituen ea Sabinaren ikustera joan nahi izan nuen. Ene lo jauntzien gainetik paltoa ezarriz gauean aitzinatu nintzen. Gaueko hamaikak ziren. Berantegi ote zen? Ez, bere etxeko leihoek oraindik argia jasotzen zuten. Atean jo nuen eta erantzunik ez nuen ukan. Belarria atean ezarri nuen eta ahotsak entzun nituen. Baina nor ote zen hain berant bere etxean. Ez zen ezkondua eta ez nion mutil lagunik ezagutzen...

Atea azkarrago jo nuen, bozak isildu ziren eta Sabinak erran zuen: "Sartu!" Orduan borta ireki nuen. Eta hila bezala gelditu nintzen; ene amets gaiztoetako eta omenaldi denboran gordea zen mutiko bera ikusi nuen. Ber begi ilun eta basati haiek. Baina gure begiak gurutzatu zirenean beste mundu bateko sentsazioa ukan nuen; eta bera gabe ordu arte nola bizi izan nintzen galdetu nion neure buruari. Mendeetan elkartu ezin ziren bi jende bezalakoak ginen... eta sua ni baitan sentitu nuen, ene *beste ni*-a pizten. Munduko sorginkeria guzia begirada hartan kontzentratua zela zirudien. Mundu honetakoa ez zen zerbait pasatzen zen. Maitemintzea baino azkarragoa. Azkenean Sabina-ren begi galdetzailleak sentitu nituen eta bortxatu nituen eneak mutikoarenetatik kentzen. Ezin bainuen deus erran Sabina zen mintzatu:

– Iduriz gauza bitxiak gertatzen dira hemen... orduan te on baten inguruan mintzatzea proposa-

tzen dizuet, baina prestatzen dudan bitartean jarri, eta ezagutzak egin...

Eta utzi gintuen. Aldi hartan irri trabatu batekin begiratu eta *deia* ezagutzen nuen boz goxo eta apalaz erran zidan: “Tom naiz, Sabinaren semea”. Ene baitan biziki ontsa benekien ez zela egia, ez zela posible, baina bere begietan irakurtzen nuen ez zuela balio gezurretan aritzea, aspaldi hartan elkar ezagutzen genuelako. Orduan irri simple batekin bere eskua nirean tinkatu nuen. Hor, berriz, ene baitan bonba bat zartatu izan balitz bezala gertatu zen eta abantzu urtzen sentitu nintzen. Nanyren izpiritua harroan zen, misterioak ekaitz azkar bat eragiten zuen gure baitan. Berak ere nik bezalako ametsak egin behar zituen, berari ere milioika galdera etortzen zitzaizkion burura, baina bere kasuan sortzetik izan behar zen. Eta zer uros izan behar zen azkenean hori guzia esplikatzen zuen norbait aurkitzarekin! Orduan, ene boza kontrolatuz erantzun nion: “Eta ni Naiara naiz, ene amatxiren ehorzketetara etorria naiz.” Bat-batean ene eskua utzi zuen, suzkoa izan balitz bezala edo Nanyren aipatzeak sobera gauzari pentsarazten balio bezala.

Baina ez zuen esplikatzeko edo barkamena eskatzeko astirik ukan, zeren Sabina hurbiltzen baitzen bi te eskuetan. Bakotxari bat eman eta Tomen ondoan jarri zen gu biak begiradaz segituz. Nigana itzuli zen eta, Tom han ez balitz bezala, bere istorioa kontatzen hasi zen: “Nehork ez daki edo ez du erraiten, baina Tom ez da ene egiazko semea. Duela hamazazpi urte, gau batez emazte

bat etorri zen ene atera jotzera Tom besoetan. Tom sortu berria zen. Emazteak erdi eroa zirudien eta ez dut inoiz jakin bere ama zenez.” –une horretan, Tomi begiratu zion amultsuki– “Hasteko, ene semea balitz bezala hezi dut. Baina handitzearekin Tom ez zen haur arrunta izan. Badakit, pentsatzen ahal dela hemen biziz ez zela arrunt normala izaiten ahal, baina bera egiazki bitxia zen. Jakin zue-nean ibiltzen, segidan inguruetako aldapetan hasi zen korritzen, ezagutzen balitu bezala. Eta Kingsley gaztelu ohira joaiten zen.” –Kingsley izena entzun genuenean biek salto ttipi bat egin genuen, baina kasurik egin gabe Sabinak segitzen zuen– “Kingsley gaztelua, lehen, Irlandako gaztelurik ederrenetari-ko bat zen. Eta segur aski badakizunez, Kingsley familia oso aspaldiko Ingalaterrako familiarik ospetsuenetariko bat zen. S***eko jaunak ziren eta zahar guziek erranen dizuete oso errespetatuak zirela, baina beharbada ez biziki maitatuak. Badakit, Kingsley familian seme gazteenarekin istorio bat izan zela, baina uste dut istorio hau mada-rikatua dela, inor ez baita sekula publikoki hortaz mintzatzen. Ijitoa bainaiz, eta sorginkeria gauzei ez bainaiz hetsia, pentsatzen hasi nintzen beharbada Tomek Kingsley familiarekin zer ikusirik bazuela. Ahal nuen guzia atzemaitera saiatu nintzen, baina egunkarietako artikulua batzuk ezik ez nuen deus kausitu gaiari buzuz. Artikuluek zioten Kingsley familiako kide guziak misterioetsuki hil zirela, lehe-nik eritasun bitxiekin eta azkenik gaztelua suntsitu zuen sutean. Eta bitxiki, Tom eskuratu nuen bi

egun sutea aitzin. Denek susmatzen zuten Nany horren azpian zela... Ez dakit zendako, baina beste kointzidentzia bat da Tomek eta Nanyk oso harreman bereziak zituztela. Zu eta Tom bezala, zerbaitek lotzen zituen eta zure amatxi oso lotua zen Tomerekin. Orai, bere desagertzeaz geroztik, zu baitan dela dirudi eta zuen arteko lotura oraino azkarragoa dela iduri du. Eta, beraz, espero dut atzemanen duzuela horren zergatia”.

Tomek eta nik elkarri begiratu genion eta isiltasuna nagusitu zen. Orduan ohartu nintzen berandu zela eta gau on bat opa nien, jakinik ere Tomek amets gaiztoak eginen zituela nik bezala. Utzi nituen eta ene etxera sartu, segidan ohera joanez. Baina aldi hartan loa ez zitzaidan etorri. Tom nuen gogoan. Zendako ez nuen lehenago ikusi herrixkan? Eta Sabinak kontatu zuen guzia heldu zitzaidan. Alde batetik jakin minez betea nintzen, baina, beste aldetik, horrek guziak kezkatzen ninduen; etorri nintzen ene amatxi «ezagutzera» eta opor on batzuk pasatzera, baina sorginkeria, heriotza istorioetan harrapatua nintzen herrixka galdu eta abantzu bizigabeen. Bai, bazen Tom. Eta bere begi ilun sakonak burura etortzen zitzaizkidan momentu berean eneak akiduraz hetsi ziren. Aldi hartan ene ametsak goxoagoak baina malenkoniatsuagoak izan ziren; Tomen eite zuten jendeak, Nany eta bere ama, enegana etortzen ziren eta otoizten zidaten: “Please, stop the curse... save us... you must know the truth...”

Biharamunen, iratzarri nintzenean, ongi sentitu nintzen, ene ametsetako jende guziek beren indarra eman balidate bezala. Ene ordulariari so egin eta ohartu nintzen hamarrak zirela eta asko lo egin nuela. Eta Tom ikusi nahi izan nuen bat-batean. Orduan Sabinaren etxera abiatu eta jo nuen atean. Sartzeko erran zidan Sabinak. Gelaren erdian atze-man nuen tindatzen. Joan zen eguneko eguzkiaren potreta egiten zuen. Baina bere tinduan alaitasuna irudikatua zen, festa bat bezala. Enegana itzuli zen eta galdetu zidan:

- Nola atzematen duzu?
- Biziki polita! Ez da hor Tom?
- Ez, goizeko zortzietatik joana da. Ez da sekula etxean egoiten... Usu amildegian da edo itsasoan Jacken barku ttipian... edo bestela Kingsley gazteluan.
- Ados. Milesker anitz. Gauza batzuetaz hitz egin behar dut harekin eta...

Baina ez zidan gehiago kasurik egiten bere marrazkiko kolore bat ari baitzen aldatzen. Orduan, etxetik atera nintzen eta landetan zehar joan nintzen ibilaldi baten egitera, Kingsley gaztelua nahi bainuen ikusi... eta Tom ere bai! Malda ttipi eta belar berdean ibili nintzen amildegia segituz. Herrixkatik urruntzen hasia nintzen eta azkenean harri lodi meta belztu batera iritsi nintzen. Gelditzen zena begiratzuz ohartu nintzen erdi aroko gazteluen antzekoa izan behar zuela, hautsezina eta itsasoa menperatzen zuena. Baratze ohi bat bazen ere, baina lore eder eta arraroak belar

tzarrez gaindituak ziren. Abantzu 100m karratu egiten zituen gaztelu ederretik bakarrik harrizko murre tristeak gelditzen ziren. Pentsamendu bizi batek pusaturik murrue erriekin ferekatu nuen. Ene barneko *bestea* orroaz hasi zen orduan, erdi negarrez, kexadura desesperatu batekin. Eta berriz irudi zati batzuk etorri zitzaizkidan burura, bakoitza ganibet bat bezain zorrotza zena ene bihotzean.

Lehenik *ikusi nintzen* hiru urtetan, bezpera gaueko ametsaren ber momentuan, negarrez *ene* ama amildegitik behera erori zen momentutik deitzen. Kingsley jaun itsusiak ez *ninduen* ikusi eta malkoz bustia zen ahoaz zin egin *nuen* bera eta bere familia, denak, hilen *nituela*. Hau eginik madarikatu *nituen* Kingsley guziak.

Gero, *ikusi nintzen* zortzi urtetan, amak hil aitzin erakutsi *zidan* bezala pozoitutako bixkotxak egiten eta eguberrirako Kingsley jaunari oparitzen. Bi egun berantago izugarritzko sufrikarioetan hil zen.

Horrela, hamar bat heriotza, *nik* eraginak, *ikusi nituen*, azkena eta beldurgarriena *ikusi nintzenean* tximista zerutik deitzen eta erori zenean Kingsley gazteluaren gainera, sekulako sutea piztuz.

Eta esna egiten nituen amets zerrenda gelditu zenean trenputxarturik belar motelean erori nintzen. Esku bat ene sorbalda tinkatzen sentitu nuen, bet-betan iratzarri nintzen. Eta Tomen bisaia kezkatu serio ederra ikusi nuen. Bere ezpainak mugitzen ziren fite, baina bere ahotsa ez nuen entzuten. Berriz astindu *ninduen* eta azkenean urrundik bezala bere boz apala etorri zitzaidan:

– Ongi? Zer beldurra eman didazun! Ikusi zaitu-dalarik hor, etzana... uste nuen...

Hatsantua zen, segurenik ez zuen usaiarik hain-beste hitz egiteko! Ez bainuen aski indarririk, irri bat egin nion eskertzeko eta segurtatzeko guti gorabe-hera ongi nintzela. Ezin bainitzen zutitu, jarririk egon nintzen eta bera ere ene ondoan. Momentu batez ez genekien sobera zer erran, ea hasten ginen mintzaten gazte arrunt batzuk bezala edo segidan *gure* arazoa aipatzen genuenez. Azkenean berriz bera zen mintzatu, baina aldi hartan ez genion elkarri begiratzen:

– Banekien hemen atzemanen zintudala... Leku hau gu bientzat berezia da. Segur aski zuk ere... amets gaiztoak egiten dituzu ezta? –Buruaz baieztatu nuen.– “Eta pentsatzen duzu bada... ez direla zugandik heldu edo hobeki erran zurekin ezer guti dutela ikustekorik», –Berriz baieztatu nuen– “Eta lehen aldikoz elkar ikusi dugunean sentitu duzu zure baitan...”

– Ez zen lehen aldia elkar ikusten genuela ezta? Eta pixka bat gorritu zen hori entzutean.

– Ez, egia, Nanyren, zure amatxiren omenaldian ikusia zintudan. Ez nintzen ausartu joatera Nanyren omenaldira, zeren badakizunez harreman bereziak genituen eta segur aski jada ohartu zara ene familia osoaren hiltzailea izan zela. Gainera, ez naiz biziki maitatua herrixkan eta nahiago dut bakarrik egon. Badakizu, nik sortzetik amets hauek giten ditut eta zu etorri aitzin ez nekien zendako. Horrek asko trabatu nau. Hor

zarenez geroztik ez naiz bakarrik eta badakit elkarrekin horri guziari bukaera bat emaiten ahal diogula. Baina egia erran, ez dakit zer egin behar dugun, *haien* mezua ez baitut ulertzen.

Ondoren, beste nonbait zela iduri zuen eta bere buruari hazka egin zion. Momentu hartan ez zuen gehiago bere arbaso gaizto eta iluna iduri, baina gazte kezkatu bat. Nik ere ez nuen sobera ideiarik, baina zerbaiten erraiteko bota nuen:

– Ene ustez Margerengana joan behar genuke. Bera da hemengo zaharrena. Berak daki gehien S***i buruz eta, gainera, Nanyren lagun hoberena zen.

Bat-batean burua altxatu zuen eta irri zabal batekin:

– Baina arrunt egia duzu! Zergatik ez nuen sekula lehenago horretan pentsatu?! Emazte horrek lagunduko gaitu, ziur naiz! Goazen!

Eta ene motelkeriatik ateraraziz, eskua tiratu zidan alaiki, zutitzeko. Abantzu korrikan ari zen eta minuturo goaitatu behar ninduen. Ahal nuen bezala segitu nuen eta, azkenik, Paten eta bere amaren etxera heldu ginen. Etxe ttipi eta maitagarria zen, erridau garbiak berinetan eta baratze ttipi eta koloretsu bat aitzinean. Atea jo zuen eta minutu bat goaitatu genuen Margeren buru ttipia agertu arte. Biak ikusi gintuenean ustekabea sumatzen zen bere bisaian, baina atea ireki zigun egunon erranez eta ezpainenetan irri bat. “Britainiar patxada” bere edertasun osoan! Bere etxe barnea bizpahiru salatan zatitua zen, segur aski Paten ganba-

ra, Margerena eta sukalde-jantoki-egongela egiten zuen azken bat. Margek segidan, ohitura zen bezala, te bat proposatu zigun. Onartu genuen gaizki hartua zelako ez onartzea. Tea zerbitzatu ondoren, galdegin zigun zerk ekartzen gintuen haren etxera. Tomek eta nik elkarri begiratu genion ea nor zen ausartuko mintzatzera eta ikusi bainuen ez zuela gogo berezirik, argiki mintzatu nintzen:

– Zuregana etorri gara nahi baikenituzke ene amatxiri buruzko informazio batzuk bildu, eta zuk zenuenez hobekien ezagutzen...

Kopeta zimurtu zuen eta haren begiak une batez urrunera joan ziren nik errandako hitzek bidairazten balute bezala. Azkenean, haren begi grisak berriz gure gainean pausatu ziren eta haren bisaia argitu zen. Eta bere boz eziaz xuxurlatu zigun:

– Bai... ulertzen dut. Normala da zuk, hona lehen aldiko etorri eta justu Nanyren heriotzaren karietara, galderak pausatzea. Zinez domaia da zuk ez duzula Nanyren ezagutza egiteko paradarik ukan. Zinez, emazte harrigarria zen.

Iruditu zitzaidan denek ber gauza erraiten zutela eta harenganako nuen jakin mina oraino handitu zen. Baina zer egiten ote zuen hain paregabea izaiteko?

– Bere lehen kalitatea, segitu zuen ene pentsamenduak entzun balitu bezala, bere ulermena zen. Jende ezezagunek ere harengan alimaleko konfiantza zuten, zeren begirada batez zure kezka zein ziren bazekiela eta ulertzen zituela ematen baitzuen. Horrez gain, dohainak bazituen, ez dakit sor-

ginkeria deitzen ahal denez, baina landareen eza-
gutza handiak zituen eta kapable zen haietarik erre-
medio hoberenak egiteko edo... pozoiz pozoitsuenak
ere bai. Bere beste dohain bat zen, erran dudan
bezala, pentsamenduetan irakurtzea. Baina ez zuen
bakarrik irakurtzen, pentsamenduak aldatzeko edo
emozioak emateko ere gai zen. Hala ere, nik daki-
danez, ez zituen inoiz asmo txarrarekin erabiltzen...
(momentu batez bere matelak gorritu ziren pixka
bat eta ziur nintzen ez zuela egia osoa erraiten,
baina segitzera utzi nuen)... ene uster bere ulerme-
na bere haurtzaro gogorrari zor zion. Hiru urte
zituenean bere ama desagertu zen, amildegian jauzi
eginez, eta zioenez haren heriotzaren ikusle izan
zen. Bere familiako emazte guziak ez ziren batere
arruntak eta usu bitxiki hiltzen ziren. Baina egia
erraiteko, ez dut sekula galdekatu bere biziko
momentu horiei buruz... Lau urte berantago bere
aita hil zen. Seguraz ere sufrimenduz, emaztearen
galtzearen ondotik. Baina, hasteko, gizon maitaga-
rria zen, arrantzale xumea, bere emaztea edozer
baino gehiago maite zuena. Oso gizon ederra zen
eta zuk dituzun eta Nanyk zituen begi berde ederrak
zituen. Hara, aski mintzatu naiz. Zuei orai! Zeren,
egia erran, ez dakit zuzen zer nahi duzuen jakin...

Tomek eta nik berriz elkarri begiratu genion eta
aldi hartan bera zen ausarki mintzatu:

– Zuregana etorri gara, zeren...

Momentu batez laguntza galdegin zidan begira-
daz, baina nik ezikusiarrena egin nuen. Orduan
eztulka segitu zuen:

– Nanyren heriotzaz geroztik gauza miresgarri batzuk gertatzen zaizkigu. Adibidez, biek amets gaiztoak egiten ditugu hartaz eta ... Kingsley familiaz, eta iduritzen zait Kingsley familiak eta Nanyk zerbait galdetzen digutela, baina ez dakigu zer. Nahi genuke gehiago jakin S***en historiaz, eta Kingsley familiari buruz dakizkizunez.

Bitxiki, Marge zaharra ez zen batere gure erranez harritua, eta Nanyren biloba nintzela erran izan banio bezain motel egon zen, jada dena baleki bezala, eta bere bisaiak betiko itxura gozo eta misteriotsua atxiki zuen. Eta irri fin bat marraztu zen bere ezpainetan:

– Ados... Ulertzen dut. Zu Tom, Kingsleytar bat zara ezta? (Tom gorritu zen eta beldurrez bezala baieztatu zuen). Ez beldur, segitu zuen Margek, uste dut hori dakien hemengo bakarra naizela eta zure sekretua hilobia arte atxikiko dut... Ba dakizu norengandik duzun Kingsley odola?

– Ez, baina joana naiz Cudlow-ra eta han atzeman dut ene aita Alexander Kingsley zela, Victoria baten semea. Ama ezezaguna...

– Alexander? Victoriak ukan seme bat? Ez dut sekula jakin Victoriak seme bat ukan zuela, baina arrunt posible da. Victoria... Victorren arreba... Eta mingarria izan gabe, Victoria oso berezia zen, pixka bat eroa eta ez zuen senarrik sekula ukan... Orduan, segur aski, zure aitari bizia emanek hil zen. Baina oso zaharra zen haur bat ukaiteko, berrogei urte inguru ukan behar zituen. Eta bada-kizu noiz hil zen zure aita Alexander?

– Bai ene sortzean.

– Ulertzen dut –haren begiak ilundu ziren–, baina zure aita izan arren ez da biziki inportantea ene kontaketan, edo beharbada bai, baina ikusiko... Hasi aitzin, nahi nuke jakin nolakoak diren, zuzen, zuen ametsak. Zeren hemengo sinesmentan erraiten da hildakoek dituztela ametsak igortzen, eta kasu berezi bat izanez gero, erraiten da hildako pertsonak mundu honetan egindako hutsak bere familiako norbaiti pagarazi edo konponarazten dizkiola. Zuen kasua dela uste dut. Ene ustez Nanyren izpirituaren parte bat zu baitan egon da Naiara eta zure kasuan berdin, Tom, eta badut ideiatxo bat noren izpiritua izaiten ahal den... baina, hasteko, biek iraganeko gertakariak konpondu beharko dituzue. Eta joandako haiek mezuak ametsen bidez pasarazten dizkizute, ahal duten bezala, baina egia da ez direla beharbada biziki argiak.

Ene amets guziak kontatu nizkion lehenik azkenera eta ulertu nuen lehenaren zentzua: ikusi nituen bisaiak Kingsleyrenak eta ene amatxirenak ziren. “You must stop the curse” esaldi horrek erran nahi baitu ingelesez “Madarikazioa gelditu behar duzu”. Iduriz, beraz, madarikazio bat zegoen. Arazoa zen ez nuela ideia izpi bat ere nola konponduko nuen. Eta harrিতua izan nintzen, zeren Tomek ere nik bezalako amets ber berak baitzitu. Baina ez zuen hitz egin “Amildegiko hilketaren” ametsaz, non Kingsley gizon ilunak Nanyren ama bota zuen amildegitik behera. Amets hori egi-

ten ote zuen, baina ahalkez gordetzen Tomek? Eta hala bazen, nor ote zen gizon hura? Baina hobe nuen bakarrik izanen ginenean horretaz galdekatzea. Eta momentuan bakarrik Margeren ahotik aterako zenaz arduratzen nintzen. Zer goaitatzen ote zuten gugandik gure *gidoigileek*? Azkenean, Marge mintzatu zen, baina aldi hartan bere bisaia ilunago eta urrunago zirudien. Bere baitatik gauza ezatseginak berriz heldu balitzaizkio bezala. Azken te xorta bat edan zuen kuraia hartzeko bezala, eta bere boz goxoarekin kontatu zigun:

– Kontatuko dizuedana dakien bakarra naiz. Eta gehiena Nanyk edo ene amak erran badidate ere, zati batzuk nik ditut asmatu edo suposatu. Orduan ezin dut erran ene ahotik aterako den guzia fidagarria denik eta aski gogorra da entzuteko. Zuen kasuan arrunt ulergarria da, baina, kasu, ez da ipuin xarmanta... (Haren begiak hetsi ziren istant batez). Dena hasi zen duela biziki aspaldi, ez nintzen oraino sortua, eta ene gurasoak ez ziren oraino ezkontzeko garaian, erran nahi baitu ez zituztela oraino hamabost urte. Ene oroitzapenak zuzenak baldin badira 1904 urten zen, Nanyren amak, Ana zuen izena, hamazazpi urte zituen eta Mudlow inguruetakoa emazte gazteetarik ederrena zen. Mutil gazte guziak bere atzean zituen, baina mutilek errespetatzen zuten eta hartaz beldur ziren, eta gehienak haren alde hiltzeko prest baziren ere, ez zen inor ausartuko bere eskua galdegitera. Haren ama hila zen eta aita gaixoa desesperatua zen bere alabarekin. Ana sorgina zen eta, gainera, basatia

zen animalia bat bezala, baina bazekien bere edertasunaz baliatzen edozer ukaiteko, bere aitaren-gandik, edo beste edonorengandik. Ez zen oraindik ezkondua eta jendeek ez zekiten zendako. S*** herri aski librea zen, nahi zenarekin ezkontzen ahal zen, baina hogeitau urte ukan aitzin, zeren gero gaizki ikusia baitzen. Eta azkenean denek ulertu zuten zendako ez zen oraino ezkondua: urte bat lehenago joana zen arrantzale batez maitemindua zen eta mutil xumeak goaitatzeko esan zion. Baina besteen trufen beldurrez, bere sekretua atxiki zuen. Maleruski, gizon batzuek ez zuten horrela ikusten eta haietariko bat Victor Kingsley zen.

Une horretan, ene baitako *bestea* gorrotoz garrasika hasi zen eta bihotzean sua ezarri izan balit bezala ukan nuen min. Tomen begirada gozo batek segidan lasaitu ninduen eta Margeren kontaketa berriz kontzentratu nintzen.

– Victor Kingsley Kingsleytarren semeetako bat zen, hogeitau bat urte ukan behar zituen, eta segur aski ikusi duzuen bisaia ilun eta ederra zuen. Nahi bazuen edozein neska eskuratzen ahal zuen, baina berak bat nahi zuen. Haur mainatua izan zen eta ttipitatik nahi zuena ukaiten usatua izan zen, bere familia aberatsa eta zorientzua zelako. Dakizuenez, segur aski Kingsleytarrek S***eko manatzaileak ziren, hango lurra haienak zirela uste zuen jendeak. Ez zen biziki garatu erdi arotik, baina biztanleak arrunt askatuak ziren Kingsleytarrek ez zirelako usu gazteluan, haien bizitoki ugarietako bat baizik ez zelako gaztelua. Hala ere,

biztanleak mespretxuz begiratzen zituzten eta errespetatuak baziren ere ez ziren sobera maitatuak. Baina lehen aldiz Kingsley bat herrixkako biztanle batez maitemindua zen, eta argiki erraiten ez bazuen ere, S***eko gaztelura usuago etortzen zen. Badakizue nola den, herri ttipi batean edozein istorio denek dakite eta hemen ez zen gauza askorik gertatzen. Orduan, norbaitek Victor Kingsley luzaz Anari so egiten ikusi zuenean, sekulako zurrumurruak hedatu ziren eta neska gazteek deia asmatzen zuten zein arropa ezarriko zuten bien ezkontza egunean. Baina hastapenean, edo Ana ez zen ohartu edo ez zuen nahi horri garrantzirik eman, baina ez zion kasu berezirik eman, ez zuelako batere gogorik Victorrekin ezkontzeko eta espero zuen hari kasu ez eginez ahantziko zuela azkenean. Baina alderantziz gertatu zen: Victorrek oraino gehiago eduki nahi izan zuen. Hemezortzi urte ukan zituen bere eskua galdegin zion. Anak ezetz erran zuen, bere aitak baietz erraiteko otoizten bazuen ere. Anak ez zuen gogo izpirik eta hasi zen eskapatzen ikusten zuen bakoitzean. Nehork ezin du frogatu, baina ziur naiz arratsero otoitz egiten zuela bere maitea itsasotik berriz etortzea; marinela berririk ez zen, ordea. Nehork ez zuen ulertzen nola marinela pobre bat goaitatzen ahal zen horrela eta jaun aberats, boteretsu eta eder baten proposamenari tu egin. Besteen begirada bitxi eta jeloskorrak ez zituen soportatzen eta usu amildegira joaiten zen; hango harri gris haie-tariko bat bezala, mugitu gabe, itsasoari so egoiten

zen. Ez dakit horregatik denez, baina amildegi horrek “Sorginaren amildegia” du izena.

Momentu batez ene pentsamenduak airatu ziren eta pentsatzen hasi nintzen S***era etorri nintzenetik bizi nuen guziak irrealia zirudiela, baina alde batetik zoragarria zen. Ene amatxi deskubritu nahian liburuetakoko benetako ipuin miresgarri eta misterioitsu batean murgildu nintzen. Eta iragan nituen hamazazpi urte haiek koloregabeak bezala ikusi nituen. Egia da ez nuela nahi ene bizia horrela pasatu, baina ez nuen sekula holakorik bizi eta pozik nintzen. Baina jakin minez istorioaren bukaera entzun nahi nuen:

– Anak bere hemeretzi urteak beteak zituen eta, baitezpada, bere ezkongia etorri behar zen. Gainera Victor gero eta presatuago ageri zen, erranez bere mutila ez zela berriz etorriko eta mutxur-din geldituko zela betirako... Orduan, Anak desesperazioz sei hilabeteko epea galdegin zion. Eritu zen, mehatu, baina beti izugarri ederra zen. Ene amak haren argazki zahar bat erakutsi zidan. Begi urdin ilun eta distiratsuak zituen, eta zuk bezala, ileak gaztaina kolore, oso luzeak. Azal arrosa epela zuen eta hortz bikainak, liraina eta femeninoa zen. Hiri handi batean bizi izan balitz aktorea izango zen. Baina segi dezagun. Sei hilabeteak bukatzen ari zirenez, amore eman zuen, negarrez eta barkamena galdegin zeruari. Hala bada, Victor Kingsley bidaiatz joan zen bere ezkontzaren berri familia osoari emaitera. Bidaiak hiru aste iraun zuen eta ez dakit zorte onez edo txarrez, baina,

hasteko, Anaren ezkongaiak itzuli zen inoiz baino ederragoa eta pixka bat aberatsago. Pentsatu gabe ere Anak bere besoetara jauzi egin zuen eta aste bat berantago ezkonduak ziren. Aita zaharrak ez zekien zer erran, baina ikusiz bere alaba pozik zela ongi hartu zuen. Arazoak etorri ziren Kingsley jauna bidaiatik itzuli zenean... Ezkontzaren berri entzutean kexu hotz eta ikaragarri batean murgildu zen. Lehenik gizona hiltzera entseatu kexu hotz eta ikaragarri batean murgildu zen. Lehenik gizona hiltzera entseatu zen, baina Anak zorte bat bota zion bere senarrari eta salbatu zen. Orduan Victor joan zen, kexu. Hau zen ikaragarriena: ez zegoen triste maite zuen emazteak ez zuelako maite, baizik eta ez zelako arribatu nahi zuen gauza, kasu hone-tan emaztea ukaitera. Orduan ziren ene gurasoak ezkondu. Bi bikoteek hiru urte zoragarri pasa zituzten. Eta ber urtean ni eta Nany sortu ginen. Lagunak izateko sortuak ginen: ene ama Anaren ezagun bat zen eta harenganako mirespen handia zuen. Horrela dut jakin haren egoera bitxia. Baina hiru urte genituenean, edo zuzen 1977ko ekainean, gertakari triste hau gertatu zen: Ana amildegian pusatua izan zen. Nanyk milioika aldiz erran dit momentua ikusi zuela eta Kingsley jaunak zuela egin mendekuz, senarra berriz itsasora joana zen artean. Bere hiru urteetatik aitzina ene amak gurekin hezi zuen, baina Nany basatia bilakatzen zen bere ama bezala. Eta zortzi urtetan oraindik aitzinatuegia zen eta madarikazio bat bota zuen, bere amak erakutsi zion bezala. Bi egun berantago

Viktor hila atzemana izan zen, baina inork ez zuen jakin nola, eta horrela izan zen bere familiako kide hurbil guzientzat: Victoria, bere arreba, eta Tomen amatxi, erotu zen, eta eguberri batez, familia osoa elkartua zen batez, abantzu denak sute batean hil ziren. Denak salbu Victoria. Hau eskapatu zen S***etik eta nehork ez zuen bere berri ukan. Nanyren aita itsasotik itzuli zenean eta bere emaztearen desagertzea jakin orduko, Nanyz arduratu zen. Baina urte bat berantago itsasora joan zen berriz eta ez zen sekula itzuli, bere emaztearekin elkartzeko bezala. Nanyk bigarren desagertze hau Kingsleyren gainean ezarri zuen. Eta oraintxe kontatu dizuedan Kingsleytarren zorigaitza Nanyren aitaren desagertzetik hiru urte iragan eta gero gertatu zen. Hara, dena badakizue...

Eta begiratu gintuen, lasaiki, sinpleki, beti ukan nahi izan nuen amatxiren begiradarekin. Isiltasunean gure tea edatea bukatu genuen hiruek, elkarri begiratu gabe. Baina azken galdera batek mihia erreten zidan, eta ziur nintzen Tomena erre behar zuela ere; baina nola egin behar dugu zortea gelditzeko, edo gure *gidoigileek* gu bakean uzteko? Azken te xorta edan ondoren ausartu nintzen eta galdegin nion:

– Baina zer egin behar dugu? Zer goaitatzen dute gugandik?

– Arazoa da ez dakidala... Zinez, etsigarria da, baina ez dut batere ideiarik nola konpontzen ahal duzuen zortea. Jakinak diren kasuetan, hilek ametsak igortzen dituzte, zigortua ez den norbait hil-

tzeko, edo barkamena galdegiteko. Baina zuen kasuan zaila da; argi da ez dela inor hil behar, baina barkamena galdegiteko. Baina zuen kasuan zaila da; argi da ez dela inor hil behar, baina barkamena eskatzeko kasuan, nork nori? Victorrek Anari, edo Nanyk Kingsleytarrei? Gainera, kontu ilun honetan magia ere sartua dago eta magiaz ez dakit zer goaitatu behar dugun. Baina azken gauza bat erran behar dizuet, oso garrantzitsua, behar-bada korapilo guziaren gakoa: S***eko historia osoa, liburu batean dago. Hau sekretu handi bat da eta Jackek ezik inork ez daki. Erdi arotik, fraide batzuek dute idatzi, gaeliko zaharrearantz idatzia da, eta Nanyk irakatsi zidan irakurtzen. Errana da 12. mende inguruetan S***eko jauntto bat eta herri-tar simple bat maitemindu zirela. Prest ziren edo-zer egiteko elkarrekin izatekotan. Maleruski, herritarrak eta jaunttoaren familia ez ziren ados izan. Eta ez zuten baimenik ukan ezkontzeko; neska gazte gaizoak beste norbaitekin ezkondu behar zuen. Hala ere, eguberri batez, amildegian elkartu ziren, eta han maitatu. Neska sorgina zen, baina garaian erraiten zen dohain bereziak zituela. Eta bieci ezarri zigorrari eskapatzera arribatu zen. Bere maitea erre zuten. Urte bat berantago amildegira bota zuen bere burua. Hori guzia erdi ipuin erdi mitoa da, sorginen presentzia, lehen sorgina eta jaunttoaren alabarekiko lotura. Ipuinak dio, sorginak haur bat ukan zuela, neska bat. Eta mendez mende sorgingoaren antzezleak beti emazteak izan omen dira. Erraten da ere amil-

degian behera jauzi egin aitzin bere familiari eta jaunttoarenari zorte bat bota ziela eta zortea konpondu arte bi familien artean arazo anitz izanen zirela. Ulertu duzueenez, segur aski, jaunttoen familia Kingsley da. Eta ez dut etsigarria izan nahi, baina zuei da zortea konpontzea, ez baduzue nahi horrek guziak segitzea.

Bat-batean inportantea sentitu nintzen: mendeetarik heldu zen zerbaitekin lotura izaitea... Margeren ahotsa isildu zenetik, konplizitate berri bat airean zegoen, gu hiruen artean. Margek akittua zirudien, baina uros eta arindua ere bai. Uros, zekizkien gauza ilunak ez zituelako berekin hilobirara eremanen. Ene ordulariari begirada bat bota nion, eta ohartu nintzen abantzu arratseko zortziak zirela eta biziki gose nintzela. S***en ez zen ikusten denbora pasatzen eta ez dakit jendeak inportantziarik emaiten zionentz denborari. Denak eguzkiarekin betan jaikitzen eta oheratzen zirela zirudien. Bakoitzak bere erritmoan, bere bizia segitzen zuen inguruan zuenaz arduratu gabe goxotasun osoan. Erritmo berezi hura hartzea erdietsi nuen, baina ezin nuen horrela anitz denboraz segitu. Orduan, etxera joan behar nuela erran nion; bere burua astindu zuen eta irri akitu bat egin. Tom ere zutitu zen eta gau on bat opatu genion; berriz etortzera gonbidatu gintuen eta atea emeki hetsi genuen. Tomek galdegina zidan gose nintzenentz eta baietz ihardetsi nion; hala, bere etxera abiatu ginen. Arrain usain azkar bat ateratzen zen leihotik eta sartu ginenean Sabina

supazterrean zen zartagin batekin borrokatzen. Sartu ginenean galdegin zigun:

– Non zineten?

Akituegiak baikinen dena kontatzeko edo gezurretan aritzeko, Tomek boz bortitz batekin erantzun zion Margeren etxean ginela. Bekain galde-tzaile bat altxatu zuen Sabinak, baina ez zuen deus erran eta inportantea izan ez balitz bezala, beste zerbaitetaz hasi zen mintzatzen. Min bainuen buruan, ez nion entzun eta ene pentsamenduak airatzera utzi nituen. Tomi mahaiia jartzen lagundu nion eta jaten hasi ginen arrain fresko eta ongi pre-paratu hura. Beste gauza batez ere ohartu nintzen; S***en jendeak errezibitzen bazekiten. Deus erran gabe gonbidatua sentitu nintzen; norbait etxe batean sartzen bazen, segidan te bat proposatua izanen zitzaion. Dena partekatzen ahal zen eta auzo batek ezeren beharrik bazuen segidan lagundua izanen zen. S***era Patek zituen hirian bakarririk atzematen ahal ziren gauzak ekartzen. Herriko marinelek arrantzatu arrain parte handiena saltzen zen, eta, gero, jende bakoitzak behar zituen gauzen zerrenda egiten zuen. Pat bere kamioi ttipian abiatzen zen, bakoitzaren beharrak betetzera, arrainen salmentatik lortutako diruari esker. Bakoitzak bere bizia bizi bazuen ere, beste biztanleei oso lotua egoiten zen. Haien komunitate ttipian bizitzeko gogoia emaiten zidan, baina sobera lotua nintzen ene Bilboko biziari, eta ez nuen sekula biztanleen lasaitasun eta urostasun xume hura lortuko. Baina zinez zortearena konpondu nahi

nuen, ziur bainintzen horrek gauza asko aldatuko zituela.

Bukatu genuen afaltzea eta Tomekin egoiteko gogo bizia banuen ere, berant zen eta ez nuen abusatatu nahi. Gauon opatu nien, baina Tomek baitezpada etxera lagundu nahi ninduen eta ene poz handia gordez eskertu nuen; ilargiaren azpian ibiltzen hasi ginen. Hasi zitzaidan erraiten oso pozik zela ene etortzeaz, bere haurtzaroa ez zela erraza izan, beti ulertzen ez zituen gauzez inguraturtua baitzen. Nik erdizka entzuten nuen, zeren ni baitan zen bataila bat gordetzeko kontzentratzen ari bainintzen. Alde batetik, bere besoetara jauzi egiteko gogo handia nuen eta ziur nintzen berak ere bazuela, baina, beste alde batetik, Nanyren ahotsa entzuten nuen, gogorra: “Naiara, ez duzu hunki behar ere mutiko hori. Kingsleytarren odol zikina dauka. Gainera, ez duzu ezagutzen ere!” Eta Tomengana nuen gorrotoa handitzen edo desagertzen sentitzen nuen, aldika. Tomen boz gozoak segitzen zuen, baina belarriak tapatzeko nahia nuen. Bat-batean ideia batek jo ninduen: Nanyren bozak Tomengandik urruntzea gomendatzen zidan; baina norena izango zen orduan harengana pusatzen ninduen? Eta Margeren hitzak berriz etorri zitzaizkidan burura: 12.mendeko sorgin bat zen madarikazio istorio horren gakoa... orduan bera izan behar zen Tom maitatzera pusatzen ninduen. Baina nola zen posible? Hamabi mendez bizirik zen izpiritu batek hitz egiten zidan? Eta ene pentsamenduekin arnasarik gabe gelditu nintzen.

Tom ohartu zen eta isildu. Begiradaz zer nuen galdegin zidan. Eta ene konklusioak erran nizkion. Haren begietan miresmena sumatu nuen:

– Baina nola atzeman duzu?

Beharrik, ilargiaren argia ez zen aski azkarra ene gorritasuna agertzeko, baina erantzun nion:

– Hona etorri orduko, beste *norbait* sentitu dut nire baitan. Ene ametsak ezin bitxiagoak ziren. Ez nuen deus ulertzen, Margeren azalpenak ukan arte. Erran digu hildako pertsonen arima parte bat bere familiako kide batean egoiten dela. Nanyren kasuan ni naiz, ene ama Bilbon baita eta Irlandatik arrunt moztua. Zure kasuan, segur aski, Victorrena da; bere arrebaren baitan sartu dena (zure amatxiren baitan) eta gero zure aitarengandik zuregana. Ene ustez arazoa konpondu arte belaualdiz belaualdiz transmititua da. Eta, logikoki, erdi aroko gure *gidoigileen* mezuaren parte bat gure baitan daukagu, arazoa ez baita konpondua izan.

– Zoragarri... xuxurlatu zuen.

Eta isiltasunean bukatu zen ibilaldi tipia. Banekien berak ere borrokatu behar izan zuela bere baitan, baina ez nuen gaiaz mintzatu nahi... Gauza batzuk guretako bakarrik atxiki behar baitira. Ene etxera heldu ginen eta deus erran gabe begiratu genion elkarri. Eta *gu* bion arteko borroka bat izan zen, bakoitzak bestearengan irakurri zuen, gorrotoa, maitasuna, galdeketa... Ez ginen gu gehiago, sorgin eta jaunttoen arimen zatiak zituzten pertsonak baizik; eta hori ere elkarrekin borrokatu behar genuen; azkenean ene begiak

beretatik kendu nituen ez zelako jasangarria gehi-
go. Irri triste eta fatalista bat egin zidan eta, eskuak
sakeletan, urrundu zen. Atea nahi baino bortizkia-
go hetsi nuen eta hustuta bezala ene ohean etzan.
Akitua nintzen, baina ez nuen nahi lo egin ame-
tsen beldurrez. Orduan, etxea hurbilagotik mia-
tzea erabaki nuen. Deia azaletik egina nuen eta ez
nuen deus berezirik atzeman, eskultura bereziak,
lumak, loreak, edo liburu ulertezinak ezik. Espero
nuen eguneroko bat edo erantzun bat emaiten
ahal zidan zerbait atzematea. Ez nuen horrelako
gauzarik atzeman, aldizkari zahar zenbait eta ene
amatxi eta aitaxiren argazki zahar bat salbu.
Aldizkariak Cudlowekoak ziren eta oso zaharrak.
Kingsley familiaren desagertzeaz hitz egiten zuten,
gauzak dramatizatuz. Ez zidaten deus berririk eka-
rri. Ene aitaxiren argazkia begiratu nuen eta harri-
tua gelditu nintzen ene amarekiko zuen antzaren-
gatik, ez zuen batere eite bere Nanyrekin, salbu
sudur ttipian. Amak erran zidan bere aitarengandik
oso hurbil zela. Segur aski bere amaren desberdine-
gia zela eta horrek zuen urrundu. Emeki-emeki, ene
begiak hesten baitziren, ohean etzan nintzen. Loa
segidan etorri zitzaidan. Baina aldi hartan amets
aski gozoak egin nituen; ene amatxi hor zen, baita
ene birramona eta hamabigarren mendeko ene
gidoigilea ere. Niri so ziren esperantzaz betetako
begiekin eta otoizten zidaten ingelesez, baitezpada
zortea konpondu behar nuela. Baina ametsa ez zen
beldurgarria, urduritasun sortzailea baizik. Hala,
jaiki nintzanean, ohartu nintzen bi egun falta zi-

tzaizkidala Bilbora itzultzeko. Eta ez nuen ideia izpirik nola jokatu. Norbaitek jo zuen atean. Espero nuen Tom zela, baina ez, Pat zen, bere ile laranja mordoska eta boz alaiarekin. Ene lo jauntzi zaharrei kasurik egin gabe, gelako mahaitik hurbildu zen eta eskuetan zuen poltsa lodia han pausatu zuen. Eta poltsatik, ogi bat, arrautzak, gurina eta sagarrak atera zituen. Eta esplikatu zidan:

– Barkatu, baina ez ginen ohartuak gauzak behar zenituela... Eta hor, Cudlowetik heldu bainaiz, zuri pentsatu dut... Beste edozer behar baduzu... Arrunt zozoa naiz, zeren bi egunen buruan berriz eraman beharko baitzaitut; baina erraiten den bezala: “Hobe berant inoiz baino!”.

Eta bere irri zabalarekin agurtu ninduen eta atera zen. Lehen aldia zen S***en nintzenetik gosaria hartzen nuela eta horrek umore onean ezarri ninduen eta optimismoz bete. Beztitu eta etxea garbitzen hasi nintzen. Baina berriz ene atean jo zuen norbaitek. Aldi hartan Tom zen bere atorra handiegi eta bere ile harrotuekin. Berak ere umore onez zirudien. Alaiki erran zidan Jackek bere ontzia prestatu ziola eta nahi banuen itsasoan itzuliño bat egitea proposatu zidan. Baietz erran nuen eta sagarrak eta arrautzopil ogitarteakoak prestatu ondoren abiatu ginen goiz fresko eta ederrean. Hondartzara abiatu ginen, eta ontzia urera pusatu ondoren uhinen kulunka goxoek eremaiten gintuzten. Hasi ginen gure biziaz mintzatzen, gure arazo iluna bazterrean utziz; bi gazte arrunt bezala mintzatu ginen, gure estudioez, maite geni-

tuen gauzez... ahal bezainbat familiaren gaia ahantziz. Lehen aldikoz ni sentitu nintzen eta ez erdi sorgina. Bere alde sentikor eta irrigarri atze-man nuen, eta noiztenka gorroto edo amodiozko zitzak ukaiten banituen ere, egun izugarri ona pasatu nuen. Gure ogitartekoak jan genituen eta bere herriaz mintzatzen hasi zen, Irlandaz. Borrokaz eta injustiziaz betetako herriak nirea gogoratu zidan, abantzu ber borrokak eta ber bitartekoak baitzituzten, Irlandak Euskal herriak baino gehiago lortu bazuen ere. Baina hori guzia aipatuz, banekien epea gero eta gehiago ttipitzen zela eta bikain pasatzen ari banintzen ere, malenkonia ilun bat sentitu nuen hurbiltzen. Berak ere segur aski, zeren bat-batean noiz joanen nintzen galdegin baitzidan. Bere ezpainak dardaraz ari ziren, hotzarengatik edo nire joatearengatik zela espero banuen ere, banekien gehiago beldurrez zela. Eta ene begiak jautsi nituenean eta aitortu nuenean bi egunen buruan uzten nuela, bere bisaia ederra berriz serio bilakatu zen. Momentuan ene besoetan hartzeko gogoa ukan nuen, baina ideia zapaldu nuen eta biek berriz begiratu genion elkarri, joan zen gauean bezala. Eta ahantzi nahi izan genituen gauza guziak berriz atera ziren oihuka. Harengana tiratzen ninduen zerbaitek eta min egiten zidan; maitasuna azkarragoa bazen ere, gorroto hautsiezin batek harengandik urruntzen ninduen. Bere begietan ber gauza gertatzen zitzaiola sumatu nuen eta horrek oraino gehiago sufriarazten zigun, elkartu nahi baikenuen ezer

baino gehiago; baina gure baitan ziren etsaiek eta gure “self-control”-ak gelditzen gintuelako. Bage-
nekien hori guzia gelditzen ahal genuela eta nera-
be arrunt batzuk bezala maitatu, baina ez genekien
nola eta segundo bakoitza zailagoa zen. Ene baitan
ene joaita salbamen bat bezala sentitzen nuen,
baina baita ere zatiketa bat bezala. Bere eskua ene
matelatik hurbildu zuen. Hotzikara ukan nuen eta
elektrizitatea pasatu banio bezala eskua kendu
zuen. Baina keinu horrek lasaitu ninduen. Eta gel-
ditze zitzaizkidan indarrekin irri egin nion.
Orduan arraunak hartu zituen eta S***erantz abia-
tu zen. Ene pentsamenduak bezala, zerua, emeki-
emeki, ilundu zen eta euri tanta arinak erortzen
hasi ziren. Tomen besoen mugimendua azkartzen
hasi zen, eta liluratuta egon nintzen, erritmoa segi-
tuz. Bere atorra itsasoko urez eta zerukoaz hasten
zen bustitzen eta ene ileak ere bai. Itsasoa azkar-
tzen zen, baina Tomek beti kontzentrazio eta pa-
txada bera atxikitzen zuen, erritmoa atxikiz eta
noiztenka begiratuz non ginen. Zinez beldurgarria
izaten ahal zen egoera, baina nik ez nuen sekula
horrela sentitu, babestua bezala sentitzen nintzela-
ko han, barku ttipian, berarekin. Azkenean hon-
dartzatza ikusi nuen eta momentutxo bat berantago
Tomek urera jauzi egin zuen eta tiratu zuen ontzia.
Hondarrera heldu ginen eta barkutik jausteko gal-
degin zidan. Jauzi egin nuen eta ene zangoak itsa-
soan busti ziren ur hotzean; hala ere ez nuen kasu-
rik egin eta Tomi barkua tiratzen lagundu nion.
Oso pizua iruditu zitzaidan, baina uretik ateratzera

arribatu ginen. Barkua bere makilazko etxolan gorde ondoren, eskutik hartu ninduen. Lehenik zapartzeko zorian nintzela iduritu zitzaidan; hala ere, ene buruari segurtatu nion esku bat esku bat zela eta ene buruan garrasika ari ziren bozei ez nien kasurik egin. Euria azkarki ari zuen eta Tomek lasterka eskutik tiratzen ninduen. Ezin genuela etxera sartu eta ezagutzen zuen haitzulo batera eremaiten ninduela oihukatu zidan haizearen ziztuaren gainetik. Haitzulora heldu ginen ura bezain bustiak eta han jarri ginen hatsantuak. Izugarri hotz genuen, baina ez genuen ezer sua pizteko; hala ere ez ginen ausartzen elkar berotzera. Ene hankak bildu nituen eta ene besoez inguratu; burua belaunen gainean pausatu nuen. Lurraren eta zeruaren arteko guda handi bat bezala nuen begien bistan: zeruak milaka zizta igortzen zizkion lurrari eta itsasoak bereganatzen zituen uhin ikaragarrietan. Ez nintzen ausartzen Tomi begiratzen, gure artean lotura hauskor bat sentitzen bainuen. Berak ere jauts ahala ari zuen euriari begiratzen zion. Bere ukondoa ene sorbaldaren ondoan sentitzen nuen, eta bere arnasak lurrun arin bat sortzen zuen. Bere ile beltzak bere kopetaren gainean zapalduak ziren. Inoiz baino gehiago besarkatu nahi izan nuen momentu hartan, baina ez, beti bezala ene gogoak gorde nituen. Euria lasaitzen hasi zenean Tomek isiltasuna hautsi zuen:

– Sabina eta besteak gure zain izan behar dira, baina goaitatu behar dugu euria gelditzea etxera berriz igaiteko.

Eta euria, entzun balu bezala, gelditu zen eta haize hotz eta busti bat ezik ez zen gehiago harpean egoiteko arrazoirik. Zutitu ginen eta gure begiradak berriz gurutzatu ziren. Egoera hura akigarria bilakatzen baitzen, erran zidan boz apal batez:

– Zure falta sentituko dut Bilbora itzuliko zarenean...

Ez naiz oroit malko bat edo euri tanta bat zenez, baina ene matela busti zen. Orduan, umilki eta herabeki, baina gogo handi ez ongi gorde batekin, bere ezpainak ene kopetan pausatu zituen. Hor, ene sabela urtzen sentitu nuen eta bere ezpainen pean larrua erretzen. Ene bihotza berearekin betan ezin lasterrago jotzen hasi zen eta ene baitan sentitu nituen boz, arima, pertsona eta arbaso guziak zurrumbilo batean bezala itzulikatzen, ene begietan euliak bezalakoa eta bigarren aldikoz aste berean, trenputxartu nintzen. Eta bigarren aldikoz ere Tomen bisaia eder eta larritua ene gainean sentitu nuen. Baina aldi hartan pozezko irri bat zuen ezpainetan. Ene bisaia bere eskuetan hartu eta erran zidan:

– Bukatua da Naiara! Utzi gaituzte! Hori zen konponketa!

Lehenik ez nuen deus ulertu, baina ohartu nintzenez bere eskuek hunkitzen nindutela eta ez nuela deus gaiztorik sentitzen... Zortea ukatu genuen, mendeetako magia zaharra hautsi genuen, musu simple eta ttipi batez! Ni ere irriz hasi nintzen eta zutitu nintzen aski errexki. Bere besoetan hartu eta tinkatu ninduen bere indar

guziez eta pentsatu nuen horrela egoiten ahal nintzela ene bizi osoan... eta gehiago ere! Azkenean, libratu ninduen eta eskutik hartuz erdi lasterka hasi ginen amildegia igotzen. Hatsantuak heldu ginen Sabinarengana. Begitarte kezkatua zuen, baina ikusi zituenean gure bisaiaik ezer erran gabe dena edo abantzu dena ulertu zuen, eta bakoitzari xukatzeo oihal bat eman zigun.

Ez naiz ongi oroit nola bukatu zen eguna, hala ere, etxera itzultzeko Tomek lagundu ninduen eta begirada maitekor bat egin zidan, eta berriz bere besoetan tinkatu, kopetan muxu bat emanetz, baina emeki, otoitz ttipi bat bezala. Sartu nintzen barruan eta esku keinu batekin gau ona opatu zidan. Etzan nintzen ohean. Bitxiki, zurezko irudi ttipiek, ez zidaten gehiago beldur emaiten eta beldurrik gabe ene begiak hetsi nituen. Amets gabeko gaua izan zen edo abantzu, zeren loan murgildu aitzin mila bozek xuxurlatu “Milesker” bat entzun bainuen.

Biharamunean nekez jaiki nintzen eta giharretako minarekin. Negar egiteko gogo handia nuen egoera konpondu zenean dena utzi behar nuelako, baina ustekabe on batek goaitatzen ninduen: Tomek zaldi bat atzeman zuen eta irri triste batez erran zidan: “Zure azken eguna da...” Eta bere gibelean zaldira igotzen lagundu ninduen. Irlandako zelai bukaezin eta berdeetan lauoinka ibilarazi genuen zaldi eder eta bizkorra, haizeak gure ileak nahasi eta matelak hozten zituelarik; une horretan inoiz sentitu ez genuen askatasun

sentimendua sumatu genuen. Eta momentu haie-
tan bere gerria ene besoez estuago tinkatzen nuen,
ez galtzeko bezala... Aldi hartan nik nuen
“Milesker” xuxurlatu.